



## 4.3. Bulegoko altzariak

### 1. Alderdi orokorrak

#### 1.1. Zer hartzen du barne

Bulegoko altzarien barruan nahiko produktu multzo zabala sartzen da, nagusiki lanerako mahaiak eta aulkiez osatua. Multzo honez gain, beste altzari batzuk ere barne hartzen ditu: artxi-batzeko altzariak, armairuak eta apalategiak, sabai-argiak eta manparak, butakak, besaulkiak eta beste elementu lagungarri batzuk —paperontziak, aterki ontziak, esekitokiak eta abar—.

Argitzeko elementu osagarriak batzuetan multzo honetan sartzen dira, baina kasu honetan alde batera utzi dira, desberdin samarrak diren ingurumen arazo batzuk dauzkatelako.

#### 1.2. Non gaude

Herri administrazioak bulegoko altzariak erostea ez da hornitze kontu finkoa edo ohikoa, unean unekoa baizik. Beste horniduretan ez bezala, herri administrazioek bulegoko altzarietarako duten aurrekontua ez da oso handia. Gutxitan da urteko aurrekontuaren % 1etik gorakoa; hala ere, batzuetan, inbertsio garrantzitsua izan daiteke, lanpostu bakoitzeko 2.000 euro ingurukoa.

Altzarien beharra hainbat arrazoiengatik sor daiteke: bulego gunek berri bat sortu delako; bulegoak egoitza berri batera eraman direlako; sailak eraikin bereko beste leku batzuetan jarri direlako; edo inguru bat berri egin delako, altzariak oso hondatuta edo zaharkituta egoteagatik.

Ingurumenaren ikuspuntutik, eraginak handiagoak dira produkzio eta botatze faseetan, eta oso-oso txikiak erabilpenaldian (bestela gertatzen da, adibidez, ibilgailuekin eta ekipo informatikoekin). Horren adierazgarri, produktuaren bizitza ziklo osoa kontuan hartzen badugu, altzarien iraunkortasun handiak eta diseinu zuzenak ingurumen eragin txikiagoa dute antzeko ezaugarriak dituen beste produktu batek baino. Eragin horiek nagusiki hauei lotuta daude:

- Egurra ateratzen den basoaren ustiapenari eta kudeaketari.
- Meatzaritza eta pieza metalikoak egiten diren galdategiei.
- Zuntzen landatzeari edo fabrikazioari, haien tindaketari eta tapizerietarako tratamenduari.
- Petrolioaren deribatuak ateratzeari, prozesatzeari eta manipulatzeari plastikoak eta aparrak egiteko.
- Pinturetan, bernizetan eta itsasgarrietan oinarritutako azal-tratamenduei eta akaberiei.



### 1.3. Nola jokatu

Produktu hauen heterogeneotasuna dela eta, eraginak, ingurumen aldekoak bezala erabiltzailearen osasunari eta segurtasunari dagozkionak ere, askotarikoak dira oso, eta nabarmen aldatzen dira produktu batetik bestera, egiturazko ezaugarrien eta fabrikatuta dauden materialen araberakoak direlako.

Laneko osasunaren eta segurtasunaren ikuspegitik, bulegoko altzari artikuluetako askok legeak zehaztutako estandarrak bete behar dituzte, ergonomia, erresistentzia, segurtasun eta laneko arriskuen prebentzioari dagokienez. Azken horiek artikuluko bakoitzarentzako arau espezifiko bidez daude erregulatuta (UNE-EN).

Ingurumen esparruan, lehenago azpimarratu bezala, eraginak nabarmenagoak dira produkzio eta botatze faseetan, eta oso-oso txikiak dira erabili bitartean. Horregatik, ingurumen eraginak gutxitzeko estrategiak honako hauek hartu behar ditu oinarritzat:

- Ahalik eta gehien luzatzea altzarien balio-bizitza, eta, horretarako, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta berriz erabiltzeko aukera bermatzea.
- Lehendik ere badauden altzariak berrerabiltzea, egoera onean egonez gero.
- Fabrikazio etapei lotutako ingurumen eragina gutxitzea. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da materialen jatorria, eta lehentasuna eman behar zaie birziklatutakoak direnei (metaletan eta plastikoetan, adibidez) edo bitarteko berriztagarrietatik datozei (zuraren kasuan). Garrantzitsua da, halaber, produkzio prozesuen karga kutsatzaileak eta produktuek dauzkaten substantzia kaltegarriak murriztea.
- Produktua diseinatzean, kontuan hartzea desmuntatu ahal izango dela, balio-bizitza amaitzen denean eta berrerabiltzeko aukera guztiak agortu ondoren, betiere material guztiak bereiziz geroago birzikla daitezten.

## 2. Jardunbide egokiak

### 2.1. Nola gutxitu kontsumoa

Bulegoko altzari berriak erosteko beharra sortzen denean, lehenik eta behin, pentsatu behar da zer aldatu beharra dagoen eta zer berrerabil daitekeen. Litekeena da mahai eta armairu berriak erosita (eta aulkiak, paperontziak, esekitokiak eta abar mantentzea) nahikoa izatea nahi dena lortzeko. Beraz, kontsumoa gutxitzeko lehen urratsa *beharrezko elementuak bakarrik aldatzea* da.

Bigarrenik, aztertu behar da zer aukera dagoen *altzariak berrerabiltzeko*, altzari horiek administrazioaren biltegikoak izan<sup>1</sup> edo —lekualdaketa bat egiten bada lehendik okupatutako beste bulego batzuetara, edo lekualdaketa hori altzariz hornitutako bulegoen artekoa bada— haien aurreko okupatzaileenak izan. Kasu horretan, komeni da harremanetan jartzea lokal berrien etorkizuneko eta aurreko okupatzaileekin, aldatzen ez diren materialak berrerabil daitezkeen aztertzeko.

Azkenik, zer erosi behar den zehatz jakin ondoren, erosketa berrian ahaleginak egingo dira iraupen luzea, egokigarritasuna, moldagarritasuna eta konpongarritasuna bermatuta daukaten altzariak erosteko, *epe luzean erosi beharra gutxitzeko*.

### 2.2. Nola jakin benetako beharrak: adierazleak

Dauden altzariei dagokienez, administrazioaren altzari piezen batez besteko bizitza da altzarien ordezte maiztasunaren adierazleetako bat; ahalik luzeena izan beharko luke.

Altzari berriak erosteko arrazoiak dira beste adierazle bat (kokapen aldaketa, sail edo erakunde berri bat sortzea, homogeneousitasun estetikoak...).

Bulegoko altzarien benetako beharrak jakiteko, beharrezkoa izango da kopuruaren segimendu zehatza egitea, hori ez baitator beti bat orrian adierazitakoarekin, bai eta eskuratutako bulegoko altzarien kalitatearen segimendua egitea ere.

Era berean, garrantzitsua izango da ordeztu diren bulegoko altzariak izandako prozesua jakitea: sortutako hondakinen kopurua eta, batez ere, materialen norakoa eta izan duten tratamendua.

### 2.3. Zer eta nola erosten dut

Zer erosi behar den aztertu eta berrerabiltzeko bideak agortu ondoren, erosketa beharrak zehaztuta izango ditugu. Lehen adierazi bezala, erosteko unean epe luzeko eta ertaineko altzari beharrak aztertu behar dira; bai obra berrietan, bai birmoldaketetan.

Askotan, kokapena edo espazioaren banaketa aldatzeko, beharrezkoa da altzariak aldatzea, haiek (batez ere mahaiak, armairuak eta bionboak) ezin baitira egokitu espazio berrietara. Hala ere, hori ez litzateke gertatuko baldin eta erosketan altzari egokigarriak hautatzea aurreikusiko balitz, neurri *egokigarriekin* (aulki eta mahaien kasuan) edo *moldagarriekin* (alde banatan hegal osagarria jartzeko aukera ematen duten mahaiak, mahaietatik bereizitako tiraderak eta abar).

<sup>1</sup> Ikus atal hau: 2.4. Nola kudeatu erabiltzen ez diren produktuak eta hondakinak.



Estetika hutsaren ikuspuntutik —oso garrantzitsua horrelako produktuetan—, *diseinuaren neutraltasunak* ere, merkatuko joerek onartzen dutenaren barruan, aukera emango du altzarien bizitza luzatzeko, denbora luzeagoa beharko dutelako boladaz pasatuta geratzeko.

Lehenago nabarmendutako funtsezko beste kontu bat *iraunkortasuna* bermatzea da. Alde batetik, beharrezkoa da eskatzea produktuak behar adina urtetarako bermea izatea, eta, bestetik, ziurtatzea konpondu ahal izango dela erresistentzia handiko lotura sistemekin, zati guztietara iritsi ahal izango dela, horiek erraz aldatzeko, eta, jakina, ordezeko piezak eskuratu ahal izango direla.

Erosteko erari dagokionez, komeni da:

- Erosketak sortatan banatzea, enpresa kopuru handiagoak parte hartzea izan dezan, horietako asko altzari mota batean daudelako espezializatuta; gainera, errazagoa da eskaintzen ebaluazioa egitea. Sorta nagusiak hauek izango lirateke: aulkiak, mahaiak, armairuak, manparak nahiz bionboak eta abar.
- Produktu jakinak erostea edo homologatzea (lizitatzailleak aurkezten duen «Z» markako «Y» lineako «X» aulkia). Horren ondorioz, errazagoa izango da hornitzaileak dokumentazioa prestatzea eta administrazioak hura ebaluatzea. Kasu honetan, ziurtagiriak eta abalak aurkezteko era bereziki garrantzitsua da, sor daitekeen paper kopuruagatik.

Askotan, horrelako erosketetan hainbat hornitzaile homologatzen dira denbora tarte jakin batean. Batzuetan, erosotasunagatik, produktu jakinak homologatu beharrean, produktu lineak edo katalogo osoak homologatzen dira. Hala ere, ingurumen parametroak ere kontuan hartu nahi badira, parametro horiek lotura estua izan behar dute produktuarekin berarekin, eta ez linea osoarekin, ezaugarriak desberdinak izan daitezkeelako.

## 2.4. Nola kudeatu erabiltzen ez diren produktuak eta hondakinak

Altzari berrien erosketak, gehienetan, ordeztu behar diren altzariak kudeatzeko beharrari lotuta dago. Baztertzen diren produktuek ez dute beti amaitu balio-bizitza, eta, beraz, haien berrera-bilpena bermatu eta sustatu beharko da, hondakin bihur daitezen baino lehen (horrenbestez, altzari berriak erosteak eragindako kostuak eta inpaktuak aurreztuko dira, eta hondakinen sorrera murriztuko).

Horretarako hainbat bide daude:

- Lekuaren okupatzaile berriei uztea, erabil ditzaten.
- Altzarietarako biltegi bat izatea, egoera onean dauden altzariak administrazioan bertan, beste erakunde batzuetan edo partikularrenetan berriz jartzeko. Erabiltzen ez den materiala eta behar berriak denboran zehar aldagarriak direnez gero, komeni da biltegi hori komuna izatea hainbat erakunderentzat. Aldi berean, kudeaketa sistema eraginkorra izan behar du: kalitatearen kontrola, *stockak*, materiala sartzeko eta ateratzeko prozedurak.
- Irabazi asmorik gabeko elkarteei, GKEei edo beste erakunde batzuei ematea, beren bulegoetan erabil ditzaten, edo lanean ari diren proiekturen batean.
- Gizarteratze erakundeei edo helburu sozialak dituztenei ematea, edo hustuketa kontratatzea, eraberritu eta berriz merkatura ditzaten; horren bidez, gizarte balioa gehitzen zaie produktuei.

Azkenik, artikulua egoera txarrean badaude eta ezin badira berriz erabili, haien balio-bizitzaren amaieran tratamendu zuzena emango zaiela bermatu behar da, material batzuk kutsagarriak izan daitezkeelako.

Sortutako hondakinen birziklapena eta tratamendua baimendutako kudeatzaileek egin behar dituzte; horiek produktuek dituzten materialak bereiziko dituzte, geroago balio handiagoa izan dezaten.

### 11. KASUA: Bizkaiko Foru Aldundia

2007an, Bizkaiko Foru Aldundiak tamaina handiko hondakinen tratamendu integralerako planta bat jarri du funtzionamenduan, hondakinen berrerabilpena ahalik handiena izan dadin (altzariena bezala etxetresna elektrikoena ere), eta hondakinak gaika bereiz daitezen, geroago birziklatzeko edo balio handiagoa izateko.

Ingurumen zerbitzu hori emateko, gizartetik baztertuta edo hala egoteko arriskuan dauden pertsonen kontratazioa sustatzen da; pertsona horiek arduratzen dira objektuak ikuskatzeaz, merkatura zein itzul daitezkeen erabakitzeko. Hondakin elektrikoak eta elektronikoak erabat konpontzen dira lantegian, edo neurri batean berrerabiltzen dira, piezak birziklatuz. Aparatu horiek eta egoera onean dauden etxerako altzari elementuak merkatuaren zirkuitura itzultzen dira bigarren eskuko salmenta denden bidez.

Informazio gehiago: <http://garbiker.bizkaia.net>

### 12. KASUA: Ihobe

Ihobek, egoitza berrira aldatu zenean, altzari zaharrak gutxi gorabehera honela banatu zituen:

- % 20 bulegoetan utzi zen, eta haien okupatzaile berriek —Uraren Euskal Agentziaren egoitzetako bat— berrerabili zuten.
- % 20 ikastetxe publiko bati eman zitzaion,.
- % 20 GKE bati eman zioten.
- % 10 Ihobeko langileen artean zozkatu zen.
- % 10 Eusko Jaurlaritzak daukan altzari biltegira eraman zen.
- gainerakoetatik, batzuk garbigune batean utzi ziren birziklatzeko, eta besteak bulego berrietara eraman ziren.

Gainera, altzari berriak erostean, ingurumen irizpide ugari ez ezik, elementu guztien iraunkortasuna, moldagarritasuna eta egokigarritasuna ere kontuan hartu ziren.



### 3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

Ingurumen kalitateari dagokionez, bi irizpide mota daude, eta kontuan hartu behar dira bulegoko altzariak erosteko orduan:

- *Irizpide orokorrak*: produktu guztietarako balio dute; besteak beste, iraunkortasuna, mantentzea, birziklagarritasuna eta bilgarriak dira.
- *Irizpide espezifikoak*: eskainitako produktuak osatzen dituzten materialetarako dira. Nagusiki zurezko taulak, elementu metalikoak, tapizeriak, bigungarriak, plastikoak eta abar.

Irizpideok alderdi hauek hartzen dituzte barne.

#### 3.1. Iraunkortasuna eta mantentzea

Esparru honetan, irizpideen helburua da produktuen balio-bizitza luzatzea. Alde batetik, hainbat garaiera eta itxuratara erraz egoki daitezkeen ekipo moldagarriak erositik. Bestetik, produktuaren erabateko bermea duten produktuak erositik, eta ziurtatuz ordezko piezak izango direla aldi luze batean. Azkenik, produktuari buruzko informazioa, muntatzeko jarraibideak, mantentzekoak eta abar gordez, balio-bizitza ahalik gehiena luzatzeko.

Beste elementu garrantzitsu bat da ziurtatzea mantentze prozesuan ez dela beharrezkoa ingurumenari kalte egiten dioten produktuak erabiltzea.

Iraunkortasunari lotuta, halaber, estandar tekniko batzuk daude, akaberaren edo, oro har, produktuen erresistentzia bermatzen dutenak. Haiek, besteak beste, hauek ezartzen dituzte: gutxienezko malgutasuna zurezko taulentzat; beroaren, urratzearen, erretzearen aurkako erresistentzia; eta kolorearen iraunkortasuna zurezko, metalezko eta ehunezko elementuetan.

Atal honetako 3. eranskinean lor daiteke estandar horien zerrenda zabal bat; hura ondoko CDan dago, eta Eusko Jaurlearitzako Ogasun Sailak bulegoko altzari orokorrak erosteko oinarri teknikoen plegutik atera da.

#### 3.2. Konpongarritasuna eta birziklagarritasuna

Produktua osatzen duten materialak ordeztu eta, behar izanez gero, konpondu ahal izateko, bai eta balio-bizitza amaitutakoan tratamendu zuzena jaso ditzaten ere, materialok erraz bereizi beharko dira gainerako osagaietatik.

Gainera, tratamendu finalistak galarazteko eta bitartekoen aurrezpena sustatzeko, materialek erraz birziklatzeko modukoak izan behar dute, material bakarreko zatiz osatuta egon behar dute, edo horiek ahalik eta homogeneoenak izan, eta ez dute izan behar bereizten zaila den estaldurarik.

#### 3.3. Bilgarriak

Horien kopurua oso handia izan daiteke, eta, horregatik, aintzat hartuko da bilgarria ahalik eta txikiena eta monomateriala izatea; lehenik eta behin, berrerabilgarria izan beharko du, edo, bestela, materia birziklatuaren edukia erabiltzeko modukoak handia izan beharko du, eta erraz bereizteko modukoak, ondo kudeatzeko eta geroago birziklatzeko.

### 3.4. Materialen jatorria

Produkzioan natur baliabideen ustiapena eta kutsadura gutxitzeko, komeni da produktuek material birziklatuen ehuneko handia izatea. Aluminioaren kasuan, adibidez, bauxita (aluminioa ateratzeko erabiltzen den minerala) erabili beharrean aluminio berreskuratua erabiltzen bada, produkzioarako beharrezko energia % 95 txikiagoa ere izan daiteke.

Egurretik eratorritako produktuen kasuan, egungo bioaniztasun eta basoen soilte arazoak saihestearren, egurra baso ustiapen iraunkorretatik datorrela ziurtatu behar da.

### 3.5. Osaera

Produktuetan dauden substantzien aniztasuna eta haiek osasun nahiz ingurumenerako duten toxikotasuna direla eta, beharrezkoa da zehaztutako erosketan irizpideetan haien erabilpena debekatuta edo mugatuta egotea. Adibidez, hauek debekatuko dira: aparretan klorofluorokarbonatuak (CFC) eta hidroklorofluorokarbonatuak (HCFC) egotea; metal astunak —besteak beste, beruna, kromoa eta merkurioa— dituzten pinturak erabiltzea. Eta honako hauek mugatuko: formaldehidoa eta Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH) igortzea, hala nola beste gehigarri batzuk, tauletan, plastikozko piezetan, tapizerietan, material betegarrian, pinturetan eta bernezetan.





## 4. Ingurumen ziurtagiriak

Erakunde ofizialek ekoetiketak ematen dituzte, eta *bulegoko altzariak* egiaztatzen dituzten ekoetiketa nagusiak Beltxarga Zuria, Aingeru Urdina eta NF-Environment marka frantsesa dira. Fabrikatzaileen eta produktu ekoetiketatuen zerrenda ekoetiketen web orrietan lor daiteke.

Material zehatzei dagokienez, beste egiaztigiri batzuk baliagarriak izan daitezke eskatutako ingurumen irizpideak betetzen direla egiaztatzeko. Hauek dira:

- *Egurra*: FSC edo PEFC<sup>2</sup>, baso ustiapenen kudeaketa iraunkorraz den bezainbatean.
- *Ehunak*: Beltxarga Zuria, Europako Etiketa Ekologikoa edo Oeko-tex izenekoaren irizpideak daude. Pertsonentzat edo ingurumenarentzat substantzia arriskutsurik ez duten ehunak egiaztatzen dituzte.
- *Aparrak*: Certipur egiaztigiriak (Aparren Ekoizleen Elkartearen egiaztigiriak) eta Europako Etiketa Ekologikoak substantzia toxiko jakin batzuk ez direla erabiltzen bermatzen dute, eta beste batzuen erabilera mugatzen.

Laburkiro, ekoetiketa nagusiak eta jasotzen dituzten produktu eta materialak hauek dira:

	ETIKETA	BELTXARGA ZURIA (IPAR EUROPAKO herrialdeak)	AINGERU UR-DINA (Alemania)	NF-ENVIRON-MENT (Frantzia)	EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA	FSC	PFEC	OEKO-TEXT (Alemania)	CERTIPUR
LOGO OFIZIALA									
ALTZARIAK*	●	●	●						
EGURRA						●	●		
EHUNAK		●			●			●	
APARRAK					●				●
* Altzariantzako ekoetiketek ingurumen irizpideak biltzen dituzte material nagusientzat, azalen tratamenduentzat eta altzarietan erabilitako itsasgarrientzat (egurra, metalak, ehunak, betetzeko materialak, berrizak eta pinturak, lekedak eta abar)									

Azkenik, badago beste egiaztigiri bat: Ekodiseinuaren EUNE 150301 araua. Ekodiseinua produktu industrialak diseinatzeko metodologia da, eta ingurumena kontuan hartzen du erabakiak hartzeko orduan, produktuak garatzeko prozesutik hasita, betidanik kontuan hartu diren faktoreei (kostuari, kalitateari...) gehitzen zaien beste faktore bat delako. Helburua da produktuaren ingurumen eragina gutxitzea haren Bizitza Ziklo osoan, hau da, produktuaren bizitzaren fase guztietan, lehengaiak eta osagaiak lortzen direnetik bota ondoren ezabatzen den arte.

<sup>2</sup> Gehiago jakiteko ikus atal hau: «4. Eskaintzen ebaluaziorako eta erosketa zuzenerako informazioak. Ingurumen egiaztigiriak»; Bulegoko papera 3.1 fitxakoa da.

## 5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Bereizi behar dira, alde batetik, bulegoko altzariak eskaintzen dituzten enpresak, eta, bestetik, fabrikatzaileak berak eta banatzaileak. Ingurumen inpaktuak fabrikazio prozesuan gertatzen direnez gero, merkatuaren ingurumen ebaluazioak *enpresa ekoizleen* gainekoa izan behar du.

IHOBE duela hainbat urtetatik bultzatzen ari den ekodiseinu programaren barruan, altzarien sektorea eraginkorrenetako bat izan da, eta besteek baino gehiago egin du aurrera bere produktuen ingurumen kalitatearen hobekuntzan. Lan horren adierazgarria da ingurumen egiaztagiriren bat duten enpresa fabrikatzaileen eta produktuen kopurua, eta horrek argi uzten du sektoreko enpresek sentiberatasun maila handia dutela ingurumen gaietan.

Bai Ihoberen web orrian, [www.ihobe.net](http://www.ihobe.net), bai [www.productosostenible.net](http://www.productosostenible.net) helbidean, Ekodiseinuaren UNE 150.301 kudeaketa sisteman egiaztatutako sistemen zerrenda ikus daiteke.

Zurezko produktuei dagokienez, nabarmentzekoa da ustiapen iraunkorren egiaztapenak (PEFC batez ere) ohiko samarrak direla Euskadiko mendietan. Ahalegin horri esker, egur egiaztatua darabilten altzari lantegiak aurki daitezke Euskadin.

Era berean, ikusten da altzarietan erabilitako tapizeriak ere batzuetan OEKO-TEX ezaugarriarekin egiaztatuta daudela.

Azkenik, beste ekoetiketa batzuekin (besteak beste, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria, TCO eta NF Environment frantsesarekin) egiaztatutako produktuak, eskuarki, atzerriko enpresetakoak dira. Hala ere, produktu horietako batzuk eskaintzen dituzten enpresa banatzaileak aurki daitezke.

Lehen esandako guztia gorabehera, kontratazioa *enpresa banatzaileen* bidez egiten denez gero, beharrezkoa da horiek jakitea produktuen eta banatzen dituzten enpresa ekoizleen ingurumen ezaugarriak.

Produktuen kalitate irizpideei dagokienez —eskuarki, UNE-EN arauak— dokumentazioa erakustea zehazten eta galdegiten denean, bai fabrikatzaileek bai hornitzaileek, egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa izan ohi dute.

Hala ere, borondatezko ingurumen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa eskatzen denean, egoera guztiz bestelakoa da. Gehienetan, hornitzaileek ez daukate informazio hori, eta fabrikatzaileek ez dute ematen askotan, litekeena izan arren hura izatea. Hau da, halako zailtasun bat antzematen da ingurumen informazio hori biltzerakoan, dela lizitatzailerak ez dakielako ezer, dela enpresa ekoizleek ez dutelako interesik gai honetan. Ez baitute jasota izaten beren dokumentazioan.

Hori saihesten ahalegintzeko, komeni da *eskaintzak aurkezteko epea handitzea* eta *informazio saioak antolatzea*, zalantzak argitzeko bai ingurumen irizpideei buruz, bai egiaztapenerako eman behar diren egiaztagiriei zein dokumentazioari buruz.



## 6. Ingurumen irizpideak

### 6.1. Prozedura ireki bidez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio modalitate honetarako proposatzen diren irizpideak erantsitako CDan daude. Kapitulu honetan hiru eskakizun maila proposatzen dira: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaintasunezkoa.

Erabili behar duen administrazioaren egoerari gehien egokitzen zaion eskakizun maila aukeratu ondoren, maila bakoitzean, ingurumen irizpide egokiez gain —zehaztapen teknikoak—, eskaintza teknikoa esleitzeko irizpideen proposamena eta haren edukia ere aurkituko dira. Lizitatuzaileek informazioa aurkezteko moduari buruzko azken atal hori baliagarria da eskatutako informazioa errazago biltzeko.

Kapitulu hori hornitzaileentzako *checklistak* osatzen du; hori ere gehitutako CDan dago, eta baldintza teknikoen orriari erantsiko zaio.

### 6.2. Prozedura negoziaturako irizpideak

Prozedura negoziatua bada, prozedura irekirako proposatutako irizpide berak erabiltzea gomendatzen da.

Hala ere, kontratazio prozesura gonbidatuko diren enpresak aukeratzeko, kontuan hartuko da haiek berek egindako altzariak banatzen dituzten edo ingurumena kudeatzeko sistemak eta produktu ekoetiketatuak edo ekodiseinatuak dauzkaten fabrikatzaileak diren.

### 6.3. Erosketa zuzenerako irizpideak

Ingurumena errespetatzen duten produktuak erosteko biderik errazena 4. atalean aipatutako ekoetiketa ofizialetako bat dutenak erostea da, edo Ekodiseinuaren UNE 150301 arauaren arabera egindako produktuak erostea.

Lantegietan ingurumena kudeatzeko sistemak dituzten fabrikatzaileen produktuak hautatzea da beste aukera bat. Ez du bermatzen produktuak hobeak direla ingurumenaren ikuspegitik; bai, ordea, produktuok legezko eskakizunen arabera eta ingurumena babesteko neurriak hartuta egiten direla.